

Gasteizko Mendi Garaiak, Natura 2000 sareko gune babestua

Gasteizko Mendi Garaiak Euskal Autonomia Erki-
degoko baso-ekosistema bikain eta zabalenetakoa
dira. Baso horiek funtzio ekologiko garrantzitsuak
betetzen dituzte eta biodibertsitatearen babesgu-
ne esanguratsua dira, askotariko endemismoen eta
arriskuan dauden espezieen aterpe.

Mendion egoera bikaina dela eta, Natura 2000
Sarearen Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE)
izendatu zuten 2.000 ha dituen jabego publikoko
ekialdeko zatia. Ereku horri "Gasteizko Mendi
Garaiak" deitzen zaio.

Los Montes de Vitoria son uno de los mejores y más
extensos ecosistemas forestales del País Vasco.
Estos bosques cumplen importantes funciones
ecológicas y son un destacable reservorio de
biodiversidad que alberga diversos endemismos y
especies amenazadas.

Su excelente estado de conservación motivó la
declaración de más de 2.000 ha de propiedad
pública de su porción oriental, conocida como
"Montes Altos de Vitoria", como Zona de Especial
Conservación (ZEC) de la Red Natura 2000.

Montes Altos de Vitoria, un espacio protegido de la Red Natura 2000

Helburua: Gasteizko Mendi Garaietako espezie mehatxatuak zaintzea

Gasteizko Udalak hainbat ekintza proposatu zituen KBE eremuan diren hariztien, arriskuan den floraren, saguzarren, baso-anfibioen eta muxar grisaren kontserbazio-egoera hobetzeko eta okil ertainaren populazioen egoera zehazki ezagutzeko.



Objetivo: conservación de las especies amenazadas de los Montes Altos de Vitoria

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz propuso diversas acciones para mejorar el estado de conservación de los robledales, la flora amenazada, los murciélagos, los anfibios forestales y el lirón gris y conocer con detalle la situación de las poblaciones del pico mediano en la ZEC.

Ekintza eta emaitza nagusiak

- Olarizuko Lorategi Botanikoko Landare Germoplasma Bankuak arriskuan den flora guztiaren haziak bildu ditu epe luzera zaintze aldera, populazioak erroldatu ditu eta ernetze-, ekoizpen- eta landaketa-protokoloak zehaztu ditu, horrela, natura-ingurunean kontserbatzeko neurriak garatu ahal izateko.
- Halaber, iratze-esporkak zaintzeko eta gerora erabiltzeko lanei ekin die, batez ere EAEn babestuta dagoen *Ophioglossum vulgatum* baso-iratze txikiarenak.
- Arriskuan diren bi landareren populazioak sendotu dira: habitata gailur-inguruetako mendi-larreetan duen eguzki lorearena (*Carlina acaulis, simplex subsp.*) eta lilipa arrunt edo sanjose lorearena (*Narcissus pseudonarcissus*). Azken landare hori erreka baten ertzean bakarrik hazten da eta bilketaren presio handia pairatzen du.
- Antzina basoberritutako hariztia zuhaixken bidez dibertsifikatu da eta landare-lehia desagerrarazi da ingurumen-balio handiko haritz motzak diren guneeetan.

- Uhandre alpetarraren populazioa aurkitu da eta putzuak egin dira espezie horren eta baso-igiel jauzkariaren mesederako.
- Saguzarrentzako 30 kutxa aterpe jarri dira eta azterketa egin da animalia horien egoeraren berri izateko. Ondorioz, hainbat espezie arriskuan direla antzeman da.
- Okil ertainen sei bikoteren berri jaso da eta espeziea zaintzeko neurriak proposatu dira, izan ere, Izkiko Natur Parketik iparraldera ezagutzen den populazio bakarra baita.
- 2014an, muxar grisentzako 30 kutxa jarri ziren aterpe egokirik eskaintzen ez zieten hainbat pagaditan, eta horietako bitan kolonizazioa egiaztatu da.



Principales acciones y resultados

- El Banco de Germoplasma Vegetal del Jardín Botánico de Olarizu ha recolectado semillas de toda la flora amenazada para su conservación a largo plazo, ha censado sus poblaciones y ha definido sus protocolos de germinación, producción y cultivo para poder desarrollar medidas de conservación en el medio natural.
- También ha empezado a trabajar en la conservación de esporas de helechos y su posterior manejo, especialmente con la lengua de serpiente (*Ophioglossum vulgatum*), un pequeño helecho forestal protegido en el País Vasco.
- Se han reforzado las poblaciones de dos plantas amenazadas: la carlina (*Carlina acaulis subsp. simplex*), cuyo hábitat se reduce a los pastos montanos de la zona cumbreña y el narciso trompón (*Narcissus pseudonarcissus*) que solo crece en la orilla de un arroyo y sufre una fuerte presión recolectora.
- Se ha diversificado con arbustos una antigua repoblación de robles y se ha eliminado competencia vegetal en enclaves con robles trasnochados de alto valor ambiental.
- Se ha localizado una población de tritón alpino y se han creado diversas charcas forestales para favorecer a esta especie y a la rana ágil.
- Se han instalado 30 cajas refugio para murciélagos y se ha realizado un estudio para conocer la situación de estos animales que ha permitido detectar diversas especies amenazadas.
- Se han inventariado seis parejas de pico mediano y se han propuesto medidas de conservación para esta especie, cuya población es la única conocida al norte del Parque Natural de Izki.
- En 2014 se instalaron 30 cajas para lirón gris en varios hayedos sin refugios adecuados para esta especie y se ha comprobado su colonización en dos de ellos.



Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak diruz lagundutako programa. Programa subvencionado por el Dpto. de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.



Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad